

ARIKETAK

- 1 Ondorengo esaldi hauek ondo daude, baina hitzekin jolastu eta pixka bat aldatuz gero errazago bihurtuko ditugu.

Berridatzi esaldiak horretarako ematen dizkizugun hitzak erabilia:

1. Ez da erregistro-idazpenen ezeztapenik egingo, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusia espedientearen agertu eta Euskadiko Kooperatiben Legean araututako likidazio-eragiketen berri eman **arte**.
(harik eta)

2. Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udalbatzak Kanalako Etxeita plazatik Zubikarai kalerainoko eskailera mekanikoak eskuratu eta instalatzeko lizitazioaren deialdi berriari buruz **hartu duen erabakia**.
(hain zuzen ere)

3. Erakunde eskegileak ez du dirulaguntzaren hirugarren zatia jasoko, horretarako baliozko fakturarik aurkeztu ezin **duelako**.
(izan ere)

4. Aldizkarian egindako hutsak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, nabarmenak **badira**, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez **badute** eta nahasbiderik ez sortzeko komeni **bada**.
(baldin eta)

5. Gure laguntza izango duzu gai horretan, jarraipena egin ahal izateko, aurreko txosten guztiak beharko **baditugu ere**.
(hori bai)

6. Batzorde honetan parte hartzen **duten** kide guztien adostasuna behar da plangintza aurrera eramateko.
(batzordekide)

7. Esleitu gabe **geratzen diren** etxebizitzak zozketa bidez esleitu dituzte Etxebizitza eta Gizarte Gaietako lurralde-ordezkariek.
(gabeko)

A R I K E T A K

8. Ikus dezagun gaia sakon eta zabal aztertzen **duen** txosten berri hori.
(du-eta)

9. Ondoriorik **ekarriko ez digun** aldaketa txiki bat egin dute dirulaguntzak eskatzeko deialdian.
(baina)

2

Aukeratu egokiena:

- Debatea amaitu zenean, Jose Antonio Rubalkaba presidentek _____ bozkatzea erabaki zuen, zuzenketen edukia oso desberdina zela argudiatuta.
 - banan banan
 - banan-banan
 - banan-bana
- Gozoa zen ongizate materialari zegokion guztia: kanila ireki eta ura izatea, hotz ala beroa aukerari, jateko nahi adina, etxetresna elektrikoak nonahi, gasolina nahiz gasa _____.
 - zenbatnahi...
 - zenbanahi...
 - zenbat-nahi...
- Inork ez du zehazten, esaterako, egunean zenbat _____ jatea komeni den.
 - jogurt
 - iogurt
 - yogurt
- Larretxeak, azkenean, _____ aldea atera zion Nazabali; kasik kanaerdiko baten aldea.
 - 2 minuto eta 21 segundoko
 - 2 minutu eta 21 segundoko
 - 2 minutu eta 21 segunduko
- Ferryz ailegatua zen Bilboraino Cindy izeneko beste lagun batekin, eta Bilbon pare bat egun eman ondoren, _____ joan ziren.
 - Iruñeara
 - Iruñara
 - Iruñera
- Akordio batera helduz gero, den-denak erosiko ditugu _____ eurotan.
 - bosna mila
 - bostna mila
 - bost milana
- Nafarroako Izatezko Bikoteen Legea _____ onartu zuen Nafarroako Parlamentuak.
 - 2000 urteko uztailan
 2000. urteko uztailan
 - 2000.eko uztailan
- Atzo umearekin haserretu nintzen eta ez marrazki bizidunik ez ezer: ohera _____ nuen.
 - sarrarazi
 - sartarazi
 - sartu arazi
- Jaurlaritzak _____ trenbidea egin gura du, Bilboko portutik merkantziak ateratzeko. Trenbideak Ortuella eta Basauri lotuko ditu eta kilometro gehienak (22) lurpetik igaroko dira.
 - 24 km.-ko
 - 24 km-ko
 - 24 km.ko

10. _____ aurreko ostegunean, ostegun gizen delakoan, Añau aldean eskean ibiltzeko ohitura zuten.
- lñauteri
 - lhauteri
 - lnauteri
11. _____ ez zitzaion gustatzen gauzak birritan errepikatzea.
- Edurne andereñoari
 - Edurne andereñoari
 - Andereño Edurneri
12. Biharko bilerara _____ proposamenak eraman behar ditu.
- norberak bere
 - bakoitzak bere
 - nork bere
13. Mutrikutik Donostiara joateko biderik laburrena _____ jotea da.
- Zarauztik
 - Zarauztik
 - Zarauztetik
14. George Clooney eta Nicole Kidman aktoreek egin zuten *The Peacemaker* pelikula bere bizitzan oinarritua egotea leporatu eta 130 milioi dolar eskatu zizkion _____
- zuz.-ari.
 - zuz-ari.
 - zuz.ari.
15. _____ (Europa Batasuneko) herrialde bakar batean ere ez du irakurleak (liburua maileguan hartzen duen erabiltzaileak) ordaintzen.
- EBko
 - EBeko
 - EB-ko

- 3 Horra hor ziurtagiri bat. Ez dago gaizki, baina txukundu daiteke oraindik; 6. orrian aurkituko dituzu horretarako beharrezko diren argibide guztiak; hala ere, hona laguntza apur bat: begiratu izenburuari, kendu beharrezkoa ez dena, banatu atalka datuak; eta amaitzeko, gogorik baduzu, aldatu amaierako esaldia. Ikusiko duzu zelako ederto geldituko den!

Ziurtagiria

Nik, Josu Uriarte Roblese, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria naizen alde-tik, honako hau ZIURTATZEN DUT:

AITOR ARAKAMA LATORRE jaunak Administrazioa hizkera argitzen ikastaroan parte hartu duela. Ikastaroa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatuta du, 20 ordu izan ditu, eta Gasteizen egin da, 2005eko urtarrilaren 12tik 15era bitartean.

Horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, ziurtagiri hau egiten dut.



Josu U. Robles
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria
IVAP

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 12a

SOLUZIOAK

1 Hona hemen irtenbide batzuk, seguru zuek besteren bat asmatu duzuela, bejondeizuela!

1. Ez da erregistro-idazpenen ezeztapenik egingo, **harik eta** Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusia espedientean agertu eta Euskadiko Kooperatiben Legean araututako likidazio-eragiketen berri eman **arte**.
2. Idazki honekin batera bidaltzen dizut Udaltzatik **hartutako erabakia, hain zuzen ere**, Kanalako Etxeita plazatik Zubikarai kalerainoko eskailera mekanikoak eskuratu eta instalatzeko lizitazioaren deialdi berriari **buruzkoa**.
3. Erakunde eskegileak ez du dirulaguntzaren hirugarren zatia jasoko; **izan ere**, ezin du horretarako baliozko fakturarik aurkeztu.
4. Aldizkarian egindako hutsak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, **baldin eta** nabarmenak **badira**, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez **badute** eta nahasbiderik ez sortzeko komeni **bada**.
5. Gure laguntza izango duzu gai horretan; **hori bai**, jarraipena behar bezala egin ahal izateko, aurreko txosten guztiak beharko **ditugu**.
6. **Batzordekide** guztien adostasuna behar da plangintza aurrera eramateko.
7. **Esleitu gabeko etxebizitzak** zozketa bidez esleituiko dituzte Etxebizitzita eta Gizarte Gaietako lurralde-ordezkariek.
8. Ikus dezagun txosten berri hori, gaia sakon eta zabal aztertzen **du-eta**.
9. Aldaketa txiki bat egin dute dirulaguntzak eskatzeko deialdian, **baina** horrek ez digu ondoriorik ekarriko.

2 Aukeratu egokiena:

- | | | |
|------------|-------|-------------|
| 1. b | 6. a | 11. a eta c |
| 2. b eta c | 7. b | 12. b eta c |
| 3. a | 8. a | 13. b eta c |
| 4. b | 9. b | 14. c |
| 5. c | 10. c | 15. a |

3 Ziurtagiria

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

ZIURTAGIRIA

Administrazioko hizkera argitzen ikastaroa

AITOR ARAKAMA LATORRE jaunak ikastaro honetan hartu du parte:

| | |
|---------------|---|
| Izena | Administrazioko hizkera argitzen |
| Iraupena | 20 ordu |
| Noiz | 2005eko urtarrilaren 12tik 15era |
| Antolatzailea | Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea |
| Tokia | Gasteiz |

Eta horrela jasotzen dut ziurtagiri honetan.

Josu U. Robles
Josu U. Robles
Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria
IVAP

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 12a

Eusko Jaurlaritzako
Eusko Gobernua
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Azpittitulu informatiboa.

Ikusten duzunez, ezabatu egin ditugu egiaztatzailearen datuak. Amaieran jarrita nahikoa da.

Ez erabili esaldi luzerik. Eskatzailearen datuak testuan jarri ditugu eta ikastaroari dagozkionak jarraian: aparte eta zerrendatuta.

Formula laburragoa aukeratu dugu.

Egiaztatzailearen datuak, hemen; eta ez bi tokitan.